



Ajangizko Udala



AJANGIZKO UDALAK 2017KO MAIATZAREN 3AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua jauna

Zinegotziak:

*Ainhoa Odriozola Berriatua andrea
Saioa Etxebarria Bilbao andrea
Alex Zubia Berriozabal jauna
Doro Astoreka Ajuriagoikoa jauna
Iñigo Valencia Alacano jauna
Ismael Oar-Arteta Undabeitia jauna*

Bitarteko Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2017ko maiatzaren 3an arratsaldeko 18:30etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2016ko abenduaren 20an ospatutako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-

- **Abenduaren 15eko 2016/153 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bulegorako fotokopiadora eta destruktore berrien hornidura esleipena Lankidego enpresari esleitzea 4.043,82 euroko prezioan.
- **Abenduaren 15eko 2016/154 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Musika ekipo berriaren hornikuntza Gernika-Lumoko Camber (Begoña Orbe Lamikiz) enpresari esleitzea, 500,00 euroko prezioan (BEZ eta gainontzeko gastuak barne).
- **Abenduaren 21eko 2016/155 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko alkate orde den Saioa Etxebarria Bilbao andrea, Alkatea kanpoan dagoen bitartean Alkatetzarako funtzioak egiteko ahalmentzea, 2016ko abenduaren 24tik 2017ko urtarrilaren 6ra bitartean, bi egun horiek barne.



Ajangizko Udala



- **Abenduaren 23ko 2016/156 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-6065-BG matrikuladun ibilgailuari 2017tik aurrera zergaren salbuespena onartzea, udal zerga ordenantzaren 4. artikuluan oinarrituta.
- **Abenduaren 23ko 2016/157 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2016ko ibilgailuen gaineko zergaren familia ugarientzako laguntza ematea: 112,00 euroren %25 = 28,00 euro.
- **Abenduaren 23ko 2016/158 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Euskera ikasteko ikastoroko matrikularen %20-a ordaintzea, guztira 48,47 euro.
- **Abenduaren 23ko 2016/159 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Euskera ikasteko ikastoroko matrikularen %20-a ordaintzea, guztira 78,47 euro.
- **Abenduaren 28ko 2016/160 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.eri, “Maier S.Coop.-ek depuradora eraikineko berrikuntza Ajangizen (Bizkaia)” proiektuak jasotzen dituen lanak burutzeko baimena.
- **Abenduaren 30eko 2016/161 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika-Lumoko Udal Kiroldegiko kuotaren erroldatu eta erroldatu gabeen arteko diferentzia ordaintzea.
- **Abenduaren 30eko 2016/162 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Artxube Dantza Taldeak aurkeztutako justifikazio agiritan oinarrituta, 672,14 euroko diru-laguntza onartzea, udal aurrekontuko 334 48102 partidan oinarrituta.
- **Abenduaren 30eko 2016/163 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2016ko 4. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.
- **Abenduaren 30eko 2016/164 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2016 urteari dagokion etxeetara konektatutako argindar publikoaren kostua onartzea, guztira 1.082,24 euro.
- **Abenduaren 30eko 2016/165 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalak 2016 urtean gizarte larrialdietarako erabili ez duen kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari bueltatzea, guztira 1.903,00 euro.
- **Abenduaren 31ko 2016/166 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udala eta Gernika-Lumoko Kosnoaga Igeriketa Kirol elkarteak 2016ko abenduaren 13an sinatutako hitzarmenean oinarrituta, Kosnoaga Igeriketa Kirol elkarteari 600,00 euroko diru laguntza ordaintzea, udal aurrekontuko 920.48003 partidan aplikatuz.
- **Abenduaren 31ko 2016/167 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko hilerriko nitxo eta panteoien salmentaren 2016ko likidazioa onartu eta 1995eko abenduaren 20ko hitzarmenean oinarrituta, Bilbanor S.Coop. enpresari 972,30 euro ordaintzea.
- **Urtarrilaren 9ko 2017/001 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko 2017ko etxez-etxe laguntzarako 1/2017 espedientearen aldaketa onartzea.
- **Urtarrilaren 17ko 2017/002 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 41 etxe aurreko sarrera eta balkoi bateko baldosak aldatzeko lanetarako baimena ematea.
- **Urtarrilaren 17ko 2017/003 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 39, Urretxa baserrian komun eta logela egiteko lanetarako baimena ematea.
- **Urtarrilaren 18ko 2017/004 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko 4. Poligonoko 462, 463, 481 eta 5. poligonoko 24. partzeletatik, Montorre basotik egurra atera behar duela eta, Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea (Bengoetxe baserriaren ondotik, Kanpantxuko kurtzerora eta Arabietara).
- **Urtarrilaren 18ko 2017/005 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 73 etxe inguruko espaloia zaharberritzeko lanetarako baimena ematea.
- **Urtarrilaren 31ko 2017/006 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Goizalde Menditaldeari datorren otsailaren 19an, txitxiburduntzi eguna ospatzeko Kanpantxuko frontoia eta udaletxeko lau mahai erabiltzeko baimena ematea.



Ajangizko Udala



- **Otsailaren 2ko 2017/007 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek biltegiko estalkia zaharberritzeko udalak tramitatutako 15/2015 espedientea bukatutzat ematea.
- **Otsailaren 7ko 2017/008 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bizkaiko Bertsozale Elkarteari datorren otsailaren 11n, Kanpantxu eta Mendietako frontoiak erabiltzeko baimena ematea.
- **Otsailaren 8ko 2017/009 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Lehen erabilerarako baimena ematea Kanpantxuko biztanleguneko C-1 lursaileko etxebizitza bakarreko eraikuntzari, Kanpantxu auzoko 86 zenbakia emanez.
- **Otsailaren 9ko 2017/010 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-00194-VE traktorea eta BI-09392-VE matrikuladun erremolkeak Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela dutela eta, ibilgailuaren gaineko zergaren salbuespena onartzea 2017tik aurrera.
- **Otsailaren 10eko 2017/011 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalari eskualdeko enplegua sustatzeko proiektuan dagokion %0,51ko ekarpena ordaintzea, 99,50 euroko kostuarekin.
- **Otsailaren 10eko 2017/12 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalak Mendieta 66 eta 67an kokatutako garajeei dagokien 108,72 euroko kuotaren ordainketa egitea.
- **Otsailaren 10eko 2017/013 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Udalbiltza Partzuergoari datorren otsailaren 21ean arratsaldeko 18.15etatik 20:00etara Ajangizko Kultur Etxea erabiltzeko baimena ematea.
- **Otsailaren 14ko 2017/014 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko kanpo argiteriko tentsio-itzulera konpontzeko lanak Instalaciones Eléctricas Urdaibai S.L. enpresari esleitzea, 575,09 euroko prezioan .
- **Otsailaren 14ko 2017/015 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Kultur Etxean garbiketa orokorra egiteko lanak Gernika Garbiketak S.L. enpresari esleitzea, 914,76 euroko prezioan.
- **Otsailaren 15eko 2017/016 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 15 Goikoerrotan baserriko labeko estalkia zaharberritzeko lanetarako baimen baldintzatua.
- **Otsailaren 16ko 2017/017 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Central Forestal S.A.k aurkeztutako eskaera onartu eta 692,00 euroko bermea itzultzea.
- **Otsailaren 16ko 2017/018 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Kanpantxu 57 Astobieta txiki baserriko estalkia zaharberritzeko lanetarako baimen baldintzatua.
- **Otsailaren 16ko 2017/019 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek aldagelak egokitzeko udalak tramitatutako 08/2016 espedientea bukatutzat ematea.
- **Otsailaren 21eko 2017/020 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.eri udaletxean Maier inguruko urbanizazio lanak bermatzeko aurkeztutako honako berme hauek itzultzea:
 - Caja Laboral Popularreko 2008058805 zenbakidun 2008/09/09ko 300.000,00 euroko bermea
 - Caja Laboral Popularreko 20090687364 zenbakidun 2009/10/26ko 1.185.000,00 euroko bermea
- **Martxoaren 2ko 2017/021 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek martxoaren 1ean udaletxean aurkeztutako, Juan José Uriarte industria ingeniariak sinatutako “Actualización edificabilidad construida febrero 2017” dokumentua onartzea, udal teknikari aholkulariak bere txostenean adierazitako zehaztapenekin.
- **Martxoaren 3ko 2017/022 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalari EUDELeko bazkide modura dagokion 2017 urteko 300,51 euroko kuota ordaintzea.



Ajangizko Udala



- **Martxoaren 3ko 2017/023 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalarari UEMAko partaide modura dagokion 2017 urteko 3.254,00 euroko UEMAko kuota ordaintzea.
- **Martxoaren 6ko 2017/024 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Mendietako bide ondoan, Bieskoa baserriaren parean, ur pilaketa ekiditzeko lanak Construcciones Intxausti S.A. enpresari esleitzea 2017ko martxoaren 1eko 2017-000-0021 aurrekontuan oinarrituta, 543,59 euroko prezioan (BEZ eta gainontzeko gastuak barne).
- **Martxoaren 9ko 2017/025 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 28, Altamira baserriko labeko estalkia zaharberritzeko lanetarako baimen baldintzatua.
- **Martxoaren 20ko 2017/026 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Explotaciones Forestales Egurmendi S.L.k egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko aurkeztutako eskaera onartu eta 1.352,00 euroko bermea itzultzea.
- **Marxoaren 20ko 2017/027 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Explotaciones Forestales Egurmendi S.L.k egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko aurkeztutako eskaera onartu eta 1.052,00 euroko bermea itzultzea.
- **Martxoaren 22ko 2017/028 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaletzeko idazkaritza-artekaritza lanpostua betetzeko ohiko lehiaketaren oinarri espezifikoaren onarpena.
- **Martxoaren 22ko 2017/029 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 79,2 D etxeko sukaldeko azulejuak zaharberritzeko lanetarako baimena.
- **Martxoaren 22ko 2017/030 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Duñabeitia Forestal S.L. enpresari, Ajangizko 1. Poligonoko 49, 51 eta 52 partzeletatik, egurra atera behar duela eta, Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimena.
- **Martxoaren 22ko 2017/031 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Mendieta 56 etxeko estalkiko teilak zaharberritzeko baimena.
- **Martxoaren 23ko 2017/032 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2017ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.
- **Martxoaren 23ko 2017/033 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Martxoaren 21eko 034 zenbakidun Construcciones Intxausti S.A. enpresaren 543,59 euroko faktura onartzea.
- **Martxoaren 23ko 2017/034 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Martxoaren 6ko 936 zenbakidun Sendo S.L. enpresaren 3.630,00 euroko faktura onartzea.
- **Martxoaren 24ko 2017/035 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Udal aurrekontuan bikoiztutako kontzeptuen kantzelaioa.
- **Martxoaren 27ko 2017/036 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko 2016ko udal aurrekontuko likidazioaren onarpena.
- **Martxoaren 29ko 2017/037 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Korrika 20en parte hartzeko udalak 600 euroko kilometroa erostea.
- **Martxoaren 31ko 2017/038 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2017ko 1. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.
- **Apirilaren 12ko 2017/039 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Udaletxerako aldi baterako peoi baten kontrataziorako deialdia zabaltzea.
- **Apirilaren 19ko 2017/040 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko 1. Poligonoko 135 eta 136 partzeletatik, Burgogana basotik, egurra atera behar duela eta, Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea.

3.- 2017KO URTARRILAREN 1EAN AJANGIZKO UDAL ERROLDAN DAUEN BIZTANLE EDO DATUEN BERRI EMATEA, BEHAR BADA.-

2017ko urtarrilaren 1ean Ajangizko biztanle erroldak honako datuak ematen ditu:



Ajangizko Udala



Biztanle kopurua: 474

- Gizonak 250
- Emakumeak 224

4.- ORDAINKETA EPEAK BETETZEARI BURUZKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAREN 2016KO 4. HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.-

Txostenaren emaitzen arabera, Ajangizko Udaleko 2016ko 4. hiruhileko datuek zera adierazten dute:

1. Ajangizko Udalak ordainketen %100 legezko epean burutu dituela
2. Ajangizko Udalaren ordainketa epearen media – 23,51 egunekoa da.
3. Hiruhilekoaren bukaeran ordaintzeko dauden fakturen %100 ordainketarako legezko epea barruan daudela.

Osoko Bilkura jakitun gertatzen da.

5.- ORDAINKETA EPEAK BETETZEARI BURUZKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAREN 2017KO 1. HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.-

Txostenaren emaitzen arabera, Ajangizko Udaleko 2017ko 1. hiruhileko datuek zera adierazten dute:

1. Ajangizko Udalak ordainketen %100 legezko epean burutu dituela
2. Ajangizko Udalaren ordainketa epearen media – 16,90 egunekoa da.
3. Hiruhilekoaren bukaeran ordaintzeko dauden fakturen %100 ordainketarako legezko epea barruan daudela.

Osoko Bilkura jakitun gertatzen da.

6.- MOTORDUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN 2017KO PADROIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

2017 urteari dagokion trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda aurkeztuta, Udalbatza osoak aho batez ondorengoak

ADOSTEN DU:

Lehenengo.- 2017 urteko Trakzio mekaniko ibilgailuei dagokion Zerga Errolda onartzea.

Bigarren.- Tributuei buruko Abenduaren 28ko 230/63 Lege Orokorreko 124. atalak eta martxoaren 26ko 3/86 Tributuen Foru Arau Orokorreko 125.2 artikuluan araututakoarekin bat, irgarki honek Trakzio Mekanizko Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez zergapekoei zuzendutako jakinerazpen kolektiboaren ondorioak izango ditu.

Hirugarrena.- Iragarria Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera hamabost (15) eguneko epean, errolda jendaurrean arkezten da, interesdunek errolda aztertu eta bidezko deritzaten alegazio edo erreklamazioak aurkezterik izan dezaten.



Ajangizko Udala



Laugarrena.- Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, errolda behin betiko onartutzat joko da.

Non. Noiz eta nola ordaindu

.- Borondatezko ordainketa, gaoionardainik gabekoa.

a) Epea: 2017ko ekainaren 1etik uztailaren 31era (bi egun horiek barne).

b) Non eta nola ordaindu: Domiziliatu gabe dituzten zordunek, Banketxean edo Udaletxean jendaurreko ordutegian ordaindu dezakete, dagozkien inprimakia aurkeztuz. Zergadunek ordainagiriak banketxean helbideratu dezakete.

Inprimakiak jaso ez izana edota ordainagiritan akatsen bat egoteak ez du ordaindu beharra salbuesten.

Borondatezko epea igarota ordainketa burutuko ez balitz, premiabidez kobratzeari ekingo zaio, Bilketarako Erreglemendu orokorreko 95 eta 96 artikulua aplikatuz, %20ko gainordainaz, berandutze interesak, gastuak eta kostua gehituz.

Indarreango xedapenen arabera, zerga honen ordainketa gauzatu ezean, ezin izango da ibilgailuaren alta, baja zein eskualdaketarik egin.

7.- AJANGIZKO HAPO-AN KANPANTXUKO SUSPENTZIOA GAINDITZEKO DOKUMENTUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko HAPO-an Kanpantxuko suspentzioa gainditzeko Begoña Arbe eta Ula Iruretagoiena arkitektoek egindako txostena 2016ko abenduaren 20an ospatutako ohiko osoko bilkuran onartu zen.

Akordio hau 2016ko abenduaren 29ko, 247 zenbakidun BAOan argitaratu zen, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean egokiak litezkeen alegazioak egin ahal izateko, Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 90.5 artikulua araututakoa betez.

Horrez gain, dokumentuan zuzeneko afektatu izan zitezkeenei zuzeneko jakinerazpen pertsonala bidali zaitzaien.

Jendaurreko epea igarota, udaletxeko erregistroan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Adierazitakoa kontutan hartuta, dokumentua behin betiko onartzea proposatzen da, eta hartutako erabakia, bidezko dokumentuarekin batera Bizkaiko Foru Aldundiari helaraztea, apirilaren 28ko 556/2016 Foru Aginduak Ispizua, Ajangiz Zaharra eta Kanpantxu landa-nukleoetan zehaztutako suspentzioa gainditu eta behin betiko onarpena eman dezan.

Proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

8.- DIRU LAGUNTZAK EMATEKO MODUA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala



Azaroaren 17ko Diru-Laguntzen 38/2003 Lege orokorrak araututakoarekin bat, udal eskumenak osatu edo ordezkaturiko dituzten onura publikoa edo gizarte interesa duten ekimen eta jarduerak sustatzeko diru laguntzak emateko modua arautu beharra dago.

Horren arabera, diru-laguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantza onartzeko asmoa martxan jarrita, udal idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena aintzat hartuta, Administrazio Publikoen Prozedura Amankomuna arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 133 artikulua araututakoa kontutan hartuta, udalak jendaurrean azaldu zuen bere asmoa interesdun orok aportazioak egin zitzaizkion.

Iragarkia ohiko udal iragarki oholetan eta udalaren www.ajangiz.eus orrialdean argitaratu zen 2017ko apirilaren 6an, 2017ko apirilaren 24rarteko epea zabalduz.

Epea igarota eta udaletxeko erregistro orokorra aztertu ondoren, ez da proposamenari buruzko inolako alegazio ezta aportaziorik aurkeztu.

Horren arabera eta prozedurarekin jarraituz, udal osoko bilkurari honako proposamena egiten zaio:

Lehenengo.- Diru-laguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantza behin behinez onartzea.

Bigarren.- Apirilaren 2ko, 7/1985 Legeko 49 artikulua araututakoa betetz, hasierako onarpenaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hogeita hamar eguneko epean interesdunek dagozkien erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ditzaten.

Hirugarren.- Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz behin behineko akordio hau behin betiko akordio bilakatuko da.

Proposamena botaziora eramanda, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

9.- AJANGIZKO HIRIGINTZA ARLOKO AHOKULARITZA TEKNIKOAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEAREN ONARPENEA, BAHAR BADA.-

Hirigintza arloko aholkularitza teknikoak kontratatzeke, zenbait negoziazio baldintzekin publikidade gabeko prozedura negoziatuz kontratazioa burutzeko administrazio espedienteari hasiera emanda.

Zerbitzu honen esleipenerako burututako Baldintza Administrazio Partikularren plegua eta administrazio espedientea osatzen duten gainontzeko dokumentuak ikusita.

Legeak ematen dituen eskumenetan oinarrituta eta azaroaren 14ko Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen Testu Bateratua jasotzen duen 3/2011 Erret Dekretu Legegileak, bigarren Xedapen Gehigarrian araututakoarekin bat, Ajangizko Udal Osoko bilkurak aho batez, **ADOSTEN DU:**

Lehenengo.- Ajangizko hirigintza arloko aholkularitza teknikoak kontratatzeke espedientearen onarpena, publikidade gabeko prozedura negoziatuz eta zenbait negoziazio baldintzekin.



Ajangizko Udala



Bigarren.- Gastua, indarreango aurrekontuaren gain onartzea.

Hirugarren.- Baldintza Administrazioen plegua onartzea.

Laugarren.- Honako enpresa hauek gonbidatzea negoziazio eskaintza aurkeztu dezaten:

- Itxaro Intxausti Arriolabengoa
- Tandem Arkitektura
- Beñat Mendiburu

Bosgarren.- Esleipen prozeduraren irekiera agintzea.

Seigarren.- Iragarkia kontratazio profileen argitaratzea.

10.- EUSKAL HERRIA BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO “GUERNICA GERNIKARA” MOZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak “Guernica Gernikara” mozioaren aurkezpena egin du. Legebiltzarrak mozioa EH BILDU eta EAJ/PNV taldeen aldeko botoekin onartu duela ere jakinerazi du, baina eskaera honek indarririk galtzen ez duenez, Ajangizko Udalak ere helburu hori defenda dezala proposatzen du.

Proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

“GUERNICA” GERNIKARA

MOZIOA

1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak “Guernica” margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Euskal Herritarren gune kuttun eta esanguratsuenetakoa zen Gernika Condor Legio naziak Francoren agindupean jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du. Beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako karraxi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau, Gernika-Lumo zein Euskal Herritarren beste eskaera eta garraxi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: “Guernica” margolana Gernika-Lumon kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zarpalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin ba dago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzerako eraman zuena. Horren jakitun, Gernika eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du, aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoa egon ordez, Gernika-Lumon bertan egotea dela egokia.

Behin baino gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arazo teknikoak aipatuz, “Guernica” bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute Euskal instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin



Ajangizko Udala



ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude “Guernica” Euskal Herrira ez ekartzeko arrazoi nagusien nagusien artean.

Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean “Guernica”-k Gernika-Lumon egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu Ajangizko Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

1.- Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picassoren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena, Gernika-Lumo dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernika-Lumora ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.

2.- Udal honek, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, Picassoren Guernica margolana Gernika-Lumon kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita ere, margolan hori Gernika-Lumon kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.

3.- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

4.- Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernu eta Kultura Ministeritzari.

11.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkate Udalburuak, 2017ko aurrekontuak egin gabe daudela gogorarazten die zinegotziei, eta proposamenak egiteko deialdia zabaldu.

Valencia jaunak, Kanpantxuko frontoian zerbait egin beharko litzatekela aipatzen du, teilatua aldatu... Badaki horrek aurrekontu garrantzitsua suposatuko lukeela, baina gutxienez sare berria jarri beharko litzatekela dio, pilotak kanpora irten ez daitezkan, eta teilatuko kanaloiak behintzat garbitu...

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da arratsaldeko zortzietan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA
Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua

BITARTEKO IDAZKARIA
Saioa Pineda Aranburu